

PARLAMENTO DE NAVARRA NAFARROAKO PARLAMENTUA

**PROTOKOLOA, NAFARROAKO PARLAMENTUAN SEXU-
JAZARPEN, SEXUARENGATIKO JAZARPEN ETA
JAZARPEN MODU ORO PREBENITU ETA HALAKO
EGOEREI AURRE EGITEKOA**

EDUKIA:

1. PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA.....	3
2. HELBURUAK.....	4
2.1. Helburu nagusia.....	4
2.2. Berariazko helburuak	4
3. ERREFERENTZIAKO ARAU-ESPARRUA.....	5
3.1 Estatuko esparrua.....	5
3.2 Nafarroako Foru Komunitatearen esparrua.....	5
3.3 Europako esparrua	6
4. APLIKAZIO EREMUA.	6
5. DEFINIZIOAK.....	6
6. PREBENTZIO EKINTZAK.....	9
7. JAZARPEN-EGOERAK EBAZTEKO BIDEAK.....	10
• 7.1. Barne-prozedura.....	11
• 7.1.1. Xedapen orokorrak.....	12
• 7.1.2. Prozeduraren faseak.....	13
7.2. Diziplina-bidea.....	15
7.3. Bide judiziala	16
8. PROTOKOLO HONI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO, KOMUNIKAZIO, ZABALKUNDE ETA PUBLIZITATE EKINTZAK.....	17
9. ERANSKINAK.....	18
9.1. Idazkaritza Nagusian aurkezteko eskabidearen eredua.....	18
9.2. Sexu-jazarpeneko edo/eta sexuarengatiko jazarpeneko egoera bat salatzeko eskabidea.	19
9.3. Sexu-jazarpeneko edo/eta sexuarengatiko jazarpeneko salaketak izapidetu eta ebazterakoan esku hartzen duten pertsonen konfidentziasunari buruzko konpromiso- eredua.	20
9.4. Terminoen glosategia.....	21
10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA WEB-ORRI INTERESGARRIAK.....	24
10.1. Bibliografia.....	24
10.2. Erreferentziako web-orriak.....	24

1. PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA.

Nafarroako Parlamentuak aditzera ematen du konpromisoa hartzen duela lan-ingurune segurua eta duintasuna, norberaren askatasuna eta erakundea osatzen duten pertsona guztien oinarrizko eskubideak errespetatzen dituen sustatu eta mantentzearen alde.

Premisa hori abiapuntu hartuta, eta Nafarroako Parlamentuko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. planean —2016ko ekainaren 20ko saioan aurkeztu zen Legebiltzarreko Mahaian— jasotako jarduketan barruan, plan hau aurkezten dugu, sexu-jazarpen, sexuarengatiko jazarpen eta jazarpen modu oro prebenitu eta halako egoerei aurre egitekoa.

Hartutako konpromiso horrekin bat, adierazten du sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko edo jazarpen modu oro pertsonen eta bere dituzten eskubideen aurkako atentatu larri bat direla.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak hurrengoak egiteko konpromisoa hartzen du:

- Ez baimentzea eta inolaz ere ez toleratzea sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko, laneko jazarpeneko edo beste edozein motatako jazarpeneko jokabide, jarrera nahiz egoerarik.
- Ez-entzunarena ez egitea horri buruz kexak, erreklamazioak eta salaketak aurkezten direnean.
- Egiten diren kexa, erreklamazio eta salaketa guztiak zorroztasunez eta azkartasunez jaso eta izapidetzea, segurtasun juridikoa, konfidentziasuna, inpartzialtasuna eta inplikaturako pertsona guztien defentsarako eskubidea behar bezala bermatuz.
- Bermatzea ez dela inongo errepresaliarik izanen, ez kexak, salaketak edo erreklamazioak aurkezten dituzten pertsonen aurka, ez eta halakoak ebazteko prozesuan parte hartzen duten pertsonen aurka ere.
- Edozein jazarpen-motatako jokabideak salatzea protokolo honetan edo langileek indarkeriarik gabeko lan-ingurune bat izateko eskubideei buruzko arauetan ezarritakoari jarraituz, zigor arloko legediak ezartzen duena gorabehera.

Hori dela eta, konpromiso hori aurrera eramateko, Nafarroako Parlamentuak erakundea osatzen duten eta hartan zerbitzua ematen duten pertsona guztiei, bereziki zuzendaritza postuetan edo tarteko aginte-postuetan daudenei, exigitzen die honako ardura hauek beren gain har ditzaten:

- Harreman profesionalak dituzten pertsona guztiak —plantillakoak, hornitzaileak, herritarrak nahiz zerbitzu-enpresetako langileak izan— tratatzea haien duintasuna eta oinarrizko eskubideak errespetatuz.
- Ofentsako, umiliazioko, apalesgarri, gogaikarri, larderiako edo etsaigoko gerta daitekeen jokabide, jarrera edo ekintza oro saihestea.
- Jokabide, jarrera edo ekintza horien aurrean egoki jardutea, ez-entzunarena egin gabe eta haiek toleratu gabe, desadostasuna adieraziz, errepika daitezen edo larriagotu daitezen eragotziz, horretarako izendaturako pertsonari aditzera emanez eta une oro halakoak pairatzen dituzten pertsonen babesa emanez.

Bere aldetik, Nafarroako Parlamentuak ondoko neurriak ezartzeko konpromisoa hartzen du:

- Sexu-jazarpenaren, sexuarengatiko jazarpenaren eta jazarpen modu ororen aurrean jarduteko protokolo bat diseinatuko du.

- Protokolo hori zabalduko du plantilla osatzen duten pertsona guztien artean — langile funtzionarioak, kontratupekoak edo behin-behinekoak—, talde parlamentarioetan eta erakundeetan zerbitzuak ematen dituzten kanpoko entitateetako langileen artean.
- Protokoloa intraneten, iragarki-oholaren eta posta elektronikoaren bidez banatuko du. Halaber, Nafarroako Parlamentuari zerbitzuak ematen dizkioten enpresen artean zabalduko da protokoloa, haien plantilletan haren berri izan dezaten.
- Berdintasunerako I. Planaren esparruan, konpromisoa hartzen du hedapeneko, sentsibilizazioko eta prebentzioko lanak egiteko, jarduketa osagarri gisa, erakundeetan gai horiekiko prebentzio-kultura bat sustatzeko.

2. HELBURUAK.

Erakundea osatzen duten pertsona guztien duintasuna, norbanakoen askatasuna eta oinarrizko eskubideak babesteko eta lan-ingurune seguru eta errespetuzkoa lortzeko, honako helburu hauek ezartzen dira:

2.1. Helburu nagusia

Sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko, jazarpen psikologikoko edo laneko jazarpeneko balizko egoerak saihestea eta desagerraraztea Nafarroako Parlamentuan eta haren menpeko erakundeetan; eta, halakoak gertatzekotan, haiei eraginkortasunez aurre egitea.

Langile guztiei eta parlamentariari prozedura hori ezagutzera ematea, eta prestakuntza egokia ematea orientabideak ematen, erreklamazioak aurkezten eta ikerketa bat hasten laguntzeko.

2.2. Berariazko helburuak

- Langileei informazioa eta prestakuntza ematea eta haiek sentsibilizatzea sexu-jazarpena, sexuarengatiko jazarpena, jazarpen psikologikoa eta laneko jazarpena direla eta.
- Sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko, jazarpen psikologikoko eta laneko jazarpeneko modu ororen aurkako politika bat zehaztu eta ezartzea, jarduketa-protokolo baten bitartez.
- Aipatutako egoerak prebenitzeko behar diren neurriak xedatu eta ezartzea (jarduketa proaktiboak).
- Berariazko jarduketa-prozedura bat ezartzea sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko, jazarpen psikologikoko eta laneko jazarpeneko egoera bati aurre egiteko (jarduketa erreaktiboak).
- Jazarrita sentitzen diren pertsonen segurtasuna, osotasuna eta duintasuna bermatzea, kasuan-kasuan bidezko diren neurriak aplikatuz, haiek babestuta, lagunduta eta baloratuta aurkitu daitezzen, eta inoiz ere ez dezaten beren duintasuna gutxituta ikus, eta inolaz ere ez dezaten sentitu beren kasua ez dela behar diren arduraz eta konfidentzialtasunaz tratatzen.
- Protokoloaren berri ematea Parlamentuko langile guztiei, funtzionarioei zein kontratupeko langileei, bai eta parlamentariari ere. Halaber, protokoloa helaraziko zaie eraikinean lan egin ohi duten enpresa kontratatuei.

3. ERREFERENTZIAKO ARAU-ESPARRUA.

Espainiako Konstituzioak, 14. artikuluan, berdintasunerako eskubidea berresten du, pertsona guztien oinarrizko eskubide gisa: *"Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta"*.

Hori eraginkor egiteko, 9.2. artikulua honako hau ezartzen du: *"Botere publikoei dagokiela inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere"*.

Halaber, zenbait artikulutan pertsonen oinarrizko eskubideak aitortzen dira. Eskubide horiek bortxaezinak dira eta pertsonari datzekio pertsona izate hutsagatik: bizitarako eskubidea, nortasuna garatzeko eskubidea, bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea, ohorerako eskubidea eta beste zenbait eskubide, berdintasunaren eta bereizkeria-ezaren esparruari dagozkionak.

3.1 Estatuko esparrua

Konstituzioaren postulatuak abiapuntu hartuta, Estatuan zenbait lege aurkituko ditugu, berdintasunaren printzipioa guztiz garatzen dutenak edo artikuluren batean txertatzen dutenak.

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerakoa: sexu-jazarpenera edo sexuarengatiko jazarpenera berriaz debekatzen ditu eta ekintza-protokoloak egitea sustatzen du.
- 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena: 14.h), 53. eta 95. artikulua.
- 62/2003 Legea, abenduaren 30ekoa, Zerga-, Administrazio- eta Gizarte-neurriei buruzkoa: 28.1.d) artikulua.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena: 4. artikulua.
- 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan-arloko Arau-hausteei eta Zigorrei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.

3.2 Nafarroako Foru Komunitatearen esparrua.

Nafarroako Foru Komunitatean, zenbait legek eta testuk osotasunean garatzen dute nahiz artikuluren batean txertatzen dute berdintasunaren eta bereizkeria-ezaren gaia:

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna sustatzekoa.

- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010), zeinaren helburuen artean jasotzen baita emakumeen laneko osasunari aurre egiteko modua hobetzeko beharra, besteak beste sexu-jazarpenari eta jazarpen psikologikoari dagokienez.

3.3 Europako esparrua

Europako esparruan, besteak beste, honako hauek aurkituko ditugu:

- Batzordearen 92/131/EEE Gomendioa, azaroaren 27koa, Lanean Emakumeen eta Gizonen Duintasuna Babesteari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentaraua, 2006ko uztailaren 5ekoa, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunari buruzkoa, enpleguarekin eta okupazioarekin zerikusia duten gaietan

4. APLIKAZIO EREMUA.

Protokolo hau aplikatuko zaie Nafarroako Parlamentuko langile guztiei (langile funtzionarioak, kontratupekoak eta behin-behinekoak), bai eta Nafarroako Parlamentuan beren zerbitzuak ematen dituzten kanpoko entitateetako langileei ere, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikuluari jarraituz; izan ere, lege organiko horretan, enpresak premiatzen dira sexu-jazarpenera eta sexuarengatiko jazarpena gerta ez dadin lan-baldintzak sustatzera, bai eta halakoak pairatu dituztenek aurkeztzen dituzten salaketa edo erreklamazioei egoki erantzutera ere. Modu berean artatuko dira gerta daitezkeen laneko jazarpeneko egoerak.

Protokoloa aplikatuko zaie, halaber, Parlamentuaren instalazioak erabiltzen dituzten pertsonari, baldin eta jotzen bada bertako langileengandik jazarpen psikologikoaren edo sexualaren, sexuarengatiko jazarpenaren edo beste edozein motatako jazarpen edo indarkeriaren definizioan sartzen diren ekintzak jasan dituztela.

Bestalde, baldin eta jazarpenaren egiletza kanpoko enpresa bateko langile bati egozten bazaio, Nafarroako Parlamentuak kanpoko enpresa edo entitatearengana joko du, behar diren neurriak har ditzan jazarpen-egoera errotik saihesteko.

Protokolo honen aplikazio-esparruan bildutako langile guztiek pertsonen berdintasuna, osotasun fisiko eta morala eta duintasuna errespetatu beharko dituzte, eta saihestuko dituzte jazarpen-kasuak izan daitezkeen jokabideak: bai jazarpen psikologikoa, sexuala edo sexuarengatikoa, bai edozein motatako indarkeria fisiko edo hitzezkoa. Parlamentuan parte hartzen duen edozein pertsonak, edozein motatako jazarpenaren biktima izan dela jotzen badu, kexa edo salaketa bat aurkeztu ahalko du, ezarritako prozedurari jarraituz.

5. DEFINIZIOAK.

Gure arau-esparruaren abiapuntua osatzen duten definizioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 7. artikuluan jasota; bertan izan ere, ezartzen da bereizkeriakotzat hartuko direla sexu-jazarpenera eta sexuarengatiko jazarpena, eta honela definitzen dira:

- **Sexu-jazarpena**

Sexu-jazarpentzat joko da, Zigor-kodean ezarritakoari kalterik egin gabe, sexu-izaerako jokabide bat sortzea, ahozkoa edo fisikoa, xede nahiz ondore duena pertsonaren duintasunaren aurka egitea, eta eragina duenean edo izan dezakeenean enpleguan edo haren baldintzetan sexu-faboreak lortzearen, edo, bestela ere, larderiakoa, apalesgarria edo ofentsakoa den ingurua sortzen duenean.

Horrenbestez, sexu-jazarpena honela bereizten da libreki onartu edo toleratutako elkarrenganako hurbilketetatik:

- ✓ Jokabideak (behin eta berriz edo modu sistematikoan gertatu ez arren) ez dira nahi izandakoak eta, horrenbestez, jasaten dituenak errefusatu egiten ditu.
- ✓ Sexu-izaerako jokabideak dira edo sexu-konnotazioak biltzen dituzte (hitzezkoak, hitzez bestekoak edo fisikoak).

Horren adibide, hona hemen zenbait jokabide, modu isolatuan edo beste batzuekin erlazionatuta, **sexu-jazarpentzat** har daitezkeenak:

Hitzezkoa

- ✓ Intsinuazio edo iruzkin gogaikarri eta apalesgarriak, sexu-edukia dutenak.
- ✓ Sexu-izaera duten zurrumurruek zabaltzea edo pertsona baten sexu-bizitzari buruzko galderak egitea.
- ✓ Iruzkin lizunzaleak. Sexu-izaerako proposamen zuzenak nahiz zeharkakoak.
- ✓ Mespretxuzko edo ofentsazko iruzkinak behin eta berriz egitea langilearen itxura edo izaera sexualari buruz.

Hitzez bestekoa

- ✓ Begirada lizunak.
- ✓ Keinu lizunzaleak.
- ✓ Sexu-edukiko ohar, mezu elektroniko eta abarrekoak, sexu-harremanak proposatzen edo akuilatzen dituztenak edo sexu-harremanak izateko presionatzen dutenak.
- ✓ Sexu-eduki esplizitua duten argazki, irudi edo marrazkiak erabiltzea.

Fisikoa

- ✓ Gehiegizko hurbilketa fisikoak.
- ✓ Behar ez diren ukitu edo ferekak.
- ✓ Pertsonak ezkutuki behatzea erreserbatutako tokietan; esate baterako, komun eta aldageletan.
- ✓ Berariaz bilatzea pertsona batekin beharrik gabe bakarka geratzea.
- ✓ Eraso fisikoak.

- **Sexuarengatiko jazarpena**

Sexuarengatiko jazarpena da genero-estereotipoak erabiltzen dituen jokabide oro (esate baterako, aurrejuzguetan edo alde zuzeneko ideietan oinarritzen da, edo emakume zein

gizonei bazterkeriako tratua ematen zaie sexuarengatik edo sexu-aukerarengatik). Horren helburua edo eragina da duintasunaren aurka egitea eta larderiako ingurune apalesgarri edo ofentsakoa sortzea; horrekin, arriskuan jar daiteke enplegua, bereziki jarduketa horiek lotuta daudenean pertsonen aukera sexualarekin edo amatasun, aitatasun eta bestelako familia-zainketa norberaren gain hartzearekin.

Sexuarengatiko jazarpena honela bereizten da libreki onartu edo toleratutako elkarrenganako hurbilketetatik:

- ✓ Sexu-jazarpenean ez bezala, sexuarengatiko jazarpenean errepikapen-pauta bat badago. Jokabide horiek ez dira nahi izandakoak eta, horrenbestez, jasaten dituenak errefusatu egiten ditu.
- ✓ Pertsona baten sexuarekin du lotura.
- ✓ Pertsonaren duintasunaren aurkako eraso bat da.

Esate baterako, honako hauek jo daitezke **sexuarengatiko jazarpen** gisa:

- ✓ Langile baten duintasunaren aurka egitea soilik emakumea delako.
- ✓ Langile baten duintasunaren aurka egitea haurdun egoteagatik edo ama izateagatik.
- ✓ Langile baten duintasunaren aurka egitea bere generoarengatik (ez duelako betetzen kulturalki sexu horri esleitzen zaion rola).
- ✓ Langile bat xaxatzea haurdun dagoelako, erdi delako edo edoskialdian dagoelako, horren barne dagoela lan-baldintzak okertzea, kontratua desegiteko mehatxuak, kaleratzea eta abar.
- ✓ Etsaitasunezko jokabideak eta mespretxuzko iruzkinak bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateragarri egitearekin lotutako eskubideez edo neurriez baliatzea eskatzeagatik edo haiek erabiltzeagatik.
- ✓ Mespretxuzko iruzkinak, irainak eta abarrekoak, langilearen balioa gutxitzekoak edo hark lanbide-kategoria jakin bat egoki betetzeko gaitasuna zalantzan jartzekoak, langilearen sexuan oinarrituta.
- ✓ Itxura fisikoari eta sexu-orientazioari edo ideologiari buruzko iruzkin jarraitu eta laidogarriak.
- ✓ Agindu kontraesanezkoak eta, horrenbestez, aldi berean betetzen ezinezkoak ematea.
- ✓ Agindu laidogarriak ematea.
- ✓ Langile baten ahalmen eta gaitasunak barregarri uztea eta mespretxatzea, sexua arrazoi hartuta.
- ✓ Umore sexista erabiltzea.
- ✓ Muturreko zaintza jarraitua dakarten jokabideak.
- ✓ Pertsona bat isolatzeko eta inkomunikatzeko agintzea.
- ✓ Eraso fisikoa.

• Laneko jazarpena

Ingelesezko terminologia erabiliz “mobbing” deitzen dena. Halakotzat ulertzen da pertsona batek edo gehiagok luzez eta behin eta berriz jokamolde edo jokabide bat izatea, hitzekoa, psikologikoa edo fisikoa, lantoki batean edo lanarekin lotuta, helburu jakin batekin: biktima umiliatzea, mespretxatzea, iraintzea, hertsatzea edo baztertzea.

Lan-ingurunean horrek eragin negatiboa izanen du eta amaieran ekar dezake ukitutakoak lanpostuari uztea.

Adierazi beharra dago lantokietan noizean behin etsaitasuneko ekintza batzuk gerta daitezkeela, baina laneko jazarpena izateko behar da haiek asmo txarrez egitea, sistematikoak izatea eta denboran luze irautea.

Hartara, honako hauek bete beharko ditu laneko jazarpenak:

- ✓ Ez dago toki fisikoak, lanaldiak edo erakundearekiko lotura juridikoak determinatua.
- ✓ Langile bat, lan-arrazoiak tarteko, "lan-ingurunean" dagoen edozein unetan gerta daiteke; esate baterako, bidaietan, prestakuntza jardunaldietan, bileretan edo enpresaren ekitaldi sozialetan.
- ✓ Garrantzia duena da jazarpenaren eta lanaren artean kausazko harremana egotea; hau da, jazarpenik ez litzateke egonen baldin eta ukitutako pertsonak bere zerbitzuak erakundearen emanen ez balitu.
- ✓ Jazarritako pertsonaren eta jazarzailearen arteko lotura egiten ari den lanaren bitartez ezartzen da.

Adibidez, honako hauek dira **laneko jazarpentzat** jo daitezkeen jokabideak:

- ✓ Langilea etengabe uztea okupazio eraginkorrik gabe edo inkomunikaturik, hori justifikatzen duen arrazoirik gabe.
- ✓ Emandako baliabideekin betetzen ezinezkoak diren aginduak ematea.
- ✓ Alferreko zereginak edo produkzio-baliorik ez dutenak ematea.
- ✓ Erakundearen aurka kexak, salaketak edo demandak aurkeztu dituzten langileen aurkako errepresalia-ekintzak, edo erreklamazio-egileei lagundu dietenen aurkakoak.
- ✓ Langile bat behin eta berriz iraintzea edo mespretxatzea.
- ✓ Langile bati behin eta berriz errieta egitea beste batzuen aurrean.
- ✓ Langile baten lanari edo bizitza pribatuari buruzko zurrumurruak zabaltzea.

6. PREBENTZIO EKINTZAK.

Horrelako egoeren prebentzioa hasiko da lehenbizi jazarpen-egoerak ez toleratzeko konpromiso tinkoa hartuz. Bigarrenik, pertsonen konpromisoa, arloari buruzko sentsibilizazioaren, informazioaren eta prestakuntzaren bidezkoa, gero aurkeztutako erreklamazio edo/eta salaketei bidea eta konponbidea eman ahal izateko, eta inolako jazarpen-motarik gabeko lan-giro bat dagoela bermatu ahal izateko.

Testuinguru horretan, honako hauek dira aurreikusitako jarduketak:

- Langile guztiei informazioa ematea jazarpen-egoerak prebenitzeko eta desagerrarazteko hartutako konpromisoari buruz eta sexu-jazarpenari eta sexuarengatiko jazarpenari buruzko protokolo hau onesteari buruz, non Nafarroako Parlamentuari lotutako erakundeetako langileak sartuko baitira.
- Langile guztiak kontziente egitea lan-ingurune errespetuzko bat eraikitzeko dauzkaten erantzukizunei buruz, eta erraztasunak ematea, prestakuntza-ekintzen bitartez, jazarpen-egoera bat identifikatzeko.
- Intranet korporatiboan espazio bat edukitzea non azalduko baita zer ulertzen den sexu-jazarpentzat edo sexuarengatiko jazarpentzat, bai eta beste edozein motatako

jazarpentzat ere, eta azaltzea zein prozedura jarraituko den baldin eta norberak eta bigarren pertsonak halakotzat katalogatutako egoeren berri badute.


- Argitasunez eta zuzenean esplizitatzea ez dela toleratuko sexu-jazarpeneko edo sexuarengatiko jazarpeneko egoerarik, ez eta beste edozein jazarpen motatako egoerarik ere.
- Protokolo honetako jarduketa-fase guztietan salatzaileei bermatzea jarduketak konfidentzialak izanen direla eta haien ohorea zainduko dela.
- Parlamentuaren konpromisoa formalizatzea barneko komunikazio bideetan (intranet, iragarki-ohola eta posta elektronikoa), Parlamentuaren web-orrian, lehendakariaren hasierako agurrean eta Parlamentuaren kanpoko komunikazioetan.

7. JAZARPEN-EGOERAK EBAZTEKO BIDEAK.

Ondoren aurkezten ditugu jazarpen-egoerak ebazteko dauden bideak. Lehenbizi, barneko bideak, bai eta aholkularitza-, ikerketa-, ebazpen- eta erantzun-sistema (aurrerantzean, barne prozedura) —Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldeak artikulatuko du— eta diziplina-bidea ere. Eta bigarrenik, zigor arloko bide judiziala.

Eta edozein motatako jazarpen-egoerarik gertatuz gero, ebazpen-bideak erabiltzeak ez du inolaz ere saihesten gainerako bi bideak ere erabiltzeko aukera. Hau da, hiru bideak independenteak dira, eta, horrenbestez, haien garapena batera zein bereizita egin ahalko da.

Halaber, jazarpena prebenitzeko eta hari aurka egiteko jarduketa-zirkuitua azaltzen da, non barne prozedura ikus baitaiteke, bai eta haren fase guztiak ere:



7.1. Barne-prozedura

Nafarroako Parlamentuaren jarduketa-protokolo hau eta jazarpen-egoerarik ez toleratzeko konpromisoa Nafarroako Parlamentuko langile guztiek ezagutu beharko dituzte. Halaber, Parlamentuan zerbitzuak ematen dituzten enpresei jakinarazi beharko zaizkie.

7.1.1. Xedapen orokorrak

Protokolo honen esparruan garatu beharreko jarduketek azkartasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa errespetatu beharko dute prozesu osoan zehar, jazarpenaren xede diren pertsonen intimitatea eta duintasuna bermatuz eta babestuz. Era berean, prozesuan inplikaturako gainerako pertsonen eskubideak errespetatu eta bermatuko dira.

Printzipio guztiak ondoren jaso ditugu:

- **Errespetua eta babesa.** Behar den diskrezioaz jardun behar da ukitutako pertsonen intimitatea eta duintasuna babesteko. Jarduketek inplikaturako pertsona guztiak (ukituak, lekukoak salatuak eta abar) ahal den guztian errespetatu beharko dituzte. Prozedura honetako jarduketa guztietan zehar, inplikaturak gomendatzen zaie laguntza eta aholkua eduki dezatela.
- **Konfidentzialtasuna.** Protokolo hau aplikatzearen ondoriozko jarduketetan sortutako eta aurkeztutako informazioa konfidentziala izanen da, eta soilik ezagutu ahalgo dute, betetzen duten eginkizunaren arabera, protokolo honen faseen garapenean zuzenean esku hartzen duten pertsonen. Gomendatzen da ezen, konfidentzialtasuna zaintzeko, komunikazioa egiten den unetik, kasuaren kudeaketaz arduratuko diren pertsonen (Nafarroako Parlamentuko idazkari nagusia eta Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldea) zenbaki bidezko identifikazio-kode batzuk erabil ditzatela bai ustez jazarritako pertsonarentzat, bai ustez jazartzailea izan denarentzat, haien identitatea zaintze aldera. Osasunari buruzko datuak berariaz tratatu beharko dira, halako moduz non espedienteari gehituko zaizkion ukitutako pertsonak berariazko baimena eman ondoren, eta sortzen den txosten orok osasunari buruzko datuen konfidentzialtasunerako eskubidea bete beharko du.
- **Informaziorako eskubidea.** Prozeduran inplikaturako pertsona guztiek eskubidea dute Nafarroako Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldeari prozedurari, eskubide nahiz betebeharre, garatzen ari den faseari eta fase guztien emaitzari buruzko informazioa izateko.
- **Prestakuntza duten pertsonen laguntza.** Prozedura bermatze aldera, Nafarroako Parlamentuak arloan prestakuntza duten pertsonen parte-hartzea izanen du (Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzua osatzen duten profesionalen lantaldea).
- **Arreta eta arintasuna.** Kasuari buruzko ikerketa eta haren ebazpena behar diren profesionaltasunaz eta diligenziaz egin behar dira, justifikaziorik gabeko geroraterik gabe, halako moduz non prozedura ahal den denbora laburrean osatu ahalgo den, bermeak errespetatuta. Prozedurak faseak ebazteko epeei buruz informatu beharko du, arintasuna eta salaketaren ebazpen azkarra lortzeko.
- **Bidezko tratua.** Prozedurak bermatu beharko du inplikaturako pertsona guztiei entzunaldi inpartziala eta tratamendu zuzena ematen zaizkiela. Prozeduran esku

hartzen duten pertsona guztiek fede onez jardun beharko dute egia ikertzeko eta salatutako egitateak argitzeko.

- **Balizko errepresalietatik babestea.** Prozeduran inplikaturako pertsona guztiek ez bazterketarik ez errepresaliarik ez pairatzeko bermeak eduki behar dituzte, jazarpen-egoera komunikatzeko edo salatuzko prozesuetan parte hartzearen ondorioz.
- **Lankidetzaren.** Prozedura honen aplikazioan zehar deitzen diren pertsona guztiek inplikatzeko eta lankidetzan jarduteko betebeharra daukate.

7.1.2. Prozeduraren faseak

Gomendatzen da esku-hartzerako honako fase hauek identifika daitezela:

1. fasea: Salaketa eta prozeduraren hasiera.

Prozedura hasiko da Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Nagusian eskabide orokor bat aurkeztuz, Nafarroako Gobernuko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuari zuzendua; horrekin batera, gutun-azal itxi batean, ustez jazarritako pertsonak edo haren ordezkariak egindako salaketa aurkeztuko da. Idazkaritza Nagusiak salaketa hori Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuari igorriko dio, horixe baita barne-prozedura aurrera eramateaz arduratuko dena.

Jazarritako pertsonak ez ezik, salaketa, hark behar bezala baimenduta, langileen ordezkariak edo Parlamentuan lan egin eta sexu-jazarpena, sexuarengatiko jazarpena edo beste edozein motatako jazarpena izan daitekeen egoera ezagutzen duen beste edozeinek ere aurkeztu ahalko dute.

Espedientea hasten den unetik hura amaitzen den arteko epea ahal den azkartasun edo ardura handienaz kudeatuko da, denboran luzatuko ez den prozesua bermatze aldera.

Salaketaren agiria Nafarroako Gobernuaren Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuari helaraziko zaio, izapidetu dezan. Zerbitzu horrek, lehen azterketa bat eginda, honako hauek egin ahalko ditu:

- a) Salaketa izapidetzeko onartzea eta prozedura hastea, protokolo honetan ezartzen den bezala.
- b) Salaketa izapidetzeko ez onartzea, planteatutakoa prozedura honen xedeari ez egokitzeagatik; hala bada, Zerbitzuak idatziz erantzun beharko dio salatutako pertsonari, salaketaren ez-onartzea justifikatuz eta argudiatuz.

Prozeduraren hasieran, salaketa aurkeztearekin batera eta jazarpenaren ustezko biktima izan denari laguntasuna eta babesa emateko, babes neurriak eskainiko dira, eta adieraziko dira zein diren aholkua eta orientabidea emateko baliagarri dauden arretabideak, larritasunari eta antsietateari aurre egiteko neurriak eta abar. Horretarako, Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzua egonen da, arloan adituak diren langileak baititu. Zerbitzu horrek prozesuan zehar laguntasuna emanen dio ustez jazarria izan den pertsonari.

Halaber, lantalde horrek kasu bakoitzean lana antolatzeko egokitzat jotzen dituen kautelazko neurriak aztertuko ditu ukitutako pertsonarekin batera, hura babeste aldera.

Prebentzio-neurri horiek prozesuaren hasieratik eman ahalko dira, eta ustez jazarria izan den pertsonaren inguruabar partikular eta pertsonalei egokituko zaizkie.

Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldeak lehenengo azterketa horren ondorioen berri emanen dio ustez abusua pairatu duen pertsonari edo haren ordezkariari. Formazko prozedurarekin edo kautelazko neurriekin jarraituz gero, idazkari nagusiari ohartaraziko zaio.

Jazarpenari buruzko salaketa Nafarroako Parlamentuarentzat lan egiten duen kanpoko enpresa bateko langile baten aurka aurkezten denean, kearen komunikazio ofizial bat idatziko da, eta kanpoko entitate horretan aurkeztuko da, prozesuaren berri izan dezan eta bidezkoak diren kautelazko neurriak har ditzan.

2. fasea. Ikerketa

- **1. kasua: Prozedura ez-formala**

Baldin eta jazarpena ustez pairatu duen pertsona ados baldin badago prozedura ez-formal bat garatzearekin, halakoari hasiera emanen zaio.

Kasu horretan, Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak izendatutako pertsona harremanetan jarriko da salatutako pertsonarekin (bakarrik edo ustez abusua pairatu duen pertsona bertan dela, azken horrek nahiago duen bezala), eta komunikatuko dio bere jokabideari buruzko salaketa edo kexa bat badagoela eta hura azalduko dio, eta adieraziko dio halakorik ez dela errepikatu behar eta nolako erantzukizuna izan lezakeen, bai eta diziplina-neurriak hartuko direla ere, jokabide hori bertan behera uzten ez badu. Halaber, salatutako pertsonaren azalpenak entzunen dira.

Prozedura ez-formal horren ondorioz, honako egoera hauek gertatu ahalko dira:

a) salaketa egiten duen pertsonak eta salatutakoak egoera identifikatu eta jokabide hori berriz ez gertatzeko konpromisoa egotea, eta aldeak ados egotea.

b) Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak jarduketara batzuk proposatzea arazoari konponbidea emateko, eta bi aldeak haiekin ados egotea.

c) akordio batera ez iristea eta, horrenbestez, prozedura formala izapidetzen hastea.

- **2. kasua: Prozedura formala**

Baldin eta prozedura ez-formalean ez bada konponbide batera iristen edo abusua ustez pairatu duen pertsonak prozedura ez-formala izapidetzearekin ados ez badago, prozedura formala hasiko da.

Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldeak ahal den informazio gehien lortzen hasiko du prozedura, bai bide dokumentaletatik, bai inplikatuekin bilerak eginez, kasuari buruzko balorazio bat egin ahal izateko. Horretarako, zerbitzu guztiek prozesuan laguntzeko betebeharra daukate, behar den dokumentazio edo informazio guztia emanez, betiere kasuari datxekion arretarekin.

Prozedura hau ahal diren arintasun, konfidentziasun eta diskrezio handienekin garatu beharko da, ukitutako pertsona guztiak kontuan hartuz (lekukoak, prozesuan parte hartzen duten pertsonak).

Ustez jazarpenaren biktima izan den pertsonari eta ustez jazarpenaren erantzule den pertsonari elkarrizketak eginen zaizkie, bai eta, halakorik badago, informazioa eman dezaketen pertsonari ere (lekukoak edo interesekoak izan daitezkeen beste batzuk). Sentiberatasunez eta errespetuz jokatu da prozesuan sartutako pertsonekin.

Bai salaketa egin duten pertsonak, bai salatuak ordezkari sindikal baten edo hautatzen duten pertsonaren laguntasuna eduki ahalko dute, hala eskatuz gero.

3. fasea. Ebazpena

Behin ikerketa-prozesua amaituta, Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldeak balorazio-txosten bat eginen du ondorioekin eta jarduketa-proposamenekin, eta hura Nafarroako Parlamentuko idazkaritza nagusiari igorriko zaio, eta horrek horren arabera jokatu du, abian jarri beharreko neurriei jarraituz.

Txostena behar diren zuhurtasun guztiekin eginen da; hain zuzen ere sexu-jazarpenekotzat, sexuarengatiko jazarpenekotzat edo laneko jazarpenekotzat nahiz jazarpen psikologikotzat har daitezkeen egoerei buruzko salaketekin zerikusia duten prozedura guztietan kontuan hartu behar diren zuhurtasunekin.

Balorazio-txostenak honako jarduketa hauetakoren bat proposatuko du:

a) Salaketa artxibatzea, honako kasu hauetan: salaketa-egileak salaketa dela eta atzera egitea (prozesu hori ofizioz jarraitu ahalko da, jazarpen-egoera bat detektatzen bada); zantzu nahikorik ez egotea, edo, aurretiazko jarduketan kasuan, aldeek onartzen badute, salaketaren helburua ebatzitzat ematen denean (azken kasu horretan, lortutako akordioari buruz informatuko da).

b) Sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko edo beste edozein motatako jazarpeneko egoera batekin lotzen ez den hutsegite bat detektatzen denean, baina hutsegite hori araudian halakotzat tipifikatuta badago, kasuko diziplina-espeditatea irekitzea proposatuko da.

c) Sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko edo beste edozein motatako jazarpeneko kasu bat dela informatzen bada, Parlamentuko idazkari nagusiari proposatuko zaio diziplina-espeditate bat ireki dezan hutsegite larri bat egoteagatik, bai eta egoera zuzentzeko behar diren antolamenduzko neurriak eta biktimari laguntzeko neurriak hartzeko ere.

Txosten hori prozesuan ukitutako aldeei jakinaraziko zaie.

7.2. Diziplina-bidea

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 38. artikuluan ezarritakoaren indarrez, langile funtzionarioak beren eginbeharrak ez betetzeagatik zehatuko dira bakar-bakarrik, ez-betetze hori diziplina hutsegitea denean.

Aldi berean, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan —zeina osagarri moduan aplikatzekoa baita—, 63. artikuluan sexu-jazarpena hutsegite larri

moduan tipifikatzen da, eta beste arau mota batzuen bitartez beste jazarpen-mota batzuk sailkatzen dira.

Hori dela eta, jazarpenaren biktima den pertsonak diziplina-espedita bat hasteko eska dezake, bi arau horietan ezarritakoari jarraituz, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 67.3 artikulua arabera, honako hauek dira jar daitezkeen zehapenak: enplegu-soldataren etenaldia, bost egunetik hogeita hamarrera bitartekoa; langilea nahitaez lantokiz aldatzea, bizilekua aldatuta zein aldatu gabe, edo eginkizunak bertan behera uztea, urtebetera bitarte.

7.3. Bide judiziala

Kanpoan ebazteko bidea zigor arloko bide judiziala da. Prozesu horren komenigarritasuna hainbat faktoreren arabera da; besteak beste, gorabeheraren edo gorabeheren larritasuna eta norainokoa eta jazarpen-egileak jazarpena pairatzen duen pertsonarekiko daukan beetetzen duen tokia (esate baterako, botereko edo estatusko balizko diferentziak). Nolanahi ere, jazarpena ustez pairatu duen pertsonak, Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuko lantaldeak aholkua emateko fasearen hasieratik, kanpoko bide horretara jotzeko behar diren orientazioa eta babesa jasoko du. Bide hori arestian azaldutako bi bide horietatik modu independente eta ordezkian hasi ahalko da.

Halaber, sexu-jazarpeneko, sexuarengatiko jazarpeneko edo laneko jazarpeneko egoera baten aurrean dauden aukera judizialak zigor arloaren jurisdikzioan daude.

Laneko jazarpena delitua izan daiteke. Sexuarengatiko laneko jazarpena delitu gisa tipifikatuta dago Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 184. artikuluan.

Arau horrek honela definitzen du sexu-jazarpena: "Norbaitek berarentzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzen baditu, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, eta jokabide horrekin biktima jartzen badu larderiako, etsaigoko, edo umiliazioko egoera objektibo eta larrian". Jokabide horri "hiru hilabetetik sei hilabetera arteko espetxe zigorra edo sei hilabetetik hamar hilabetera arteko isuna" egozten zaio.

Gainera, zigorra larriagoa izan daitekeen balizko bi egoera ezartzen dira:

- Sexu-jazarpenaren errudunak egitatea gauzatu badu laneko nagusitasun-egoeraz baliatuz, edo biktimari, esanbidez edo isilbidez, laneko harreman horren inguruan izan ditzakeen bidezko igurikimenei kalte eragingo diela mehatxu eginez.

- Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela-eta bereziki ahula bada.

Bestalde, Zigor Kodearen 314. artikulua delitu gisa tipifikatzen du sexuarengatiko laneko bazterkeria-jokabidea. Sexuarengatiko jazarpen-jokabide bat sexuarengatiko laneko bazterkeria-jokabide gisa kalifikatzen bada, arestian aipatutako artikulua delitu-figuran sartuko da.

Halaber, Zigor Kodeak, 173.1 artikuluan, laneko jazarpena tipifikatzen du, eta osotasun moralaren aurkako delituen artean jasotzen du. Izan ere, artikulua horrek hauxe ezartzen du: "Norbaitek beste pertsona bati tratu apalesgarria ematen badio, beraren osotasun moralari kalte larria eginez, sei hilabetetik bi urtera arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio. Zigor berbera ezarriko zaie, edozein lan- edo funtzionario-harremanen eremuan, beren nagusitasun harremanaz baliatuz, beste baten aurka eta behin eta berriz etsaigoko egintzak edo egintza umiliagarriak gauzatzen dituztenei, egintza horiek tratu apalesgarria izatera heldu gabe, biktimaren aurkako jazarpen larria osatzen dutenean."

8. PROTOKOLO HONI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO, KOMUNIKAZIO, ZABALKUNDE ETA PUBLIZITATE EKINTZAK.

Langileak gai hauen inguruan sentsibilizatzeko ekintzen barruan, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

- Sentsibilizazio-ekintzak, ondokoen modukoak: liburuxkak, afixak, buletinak eta abar. Haien bitartez, aukera egonen da protokoloa badagoela jakiteko eta haren ezaugarri nagusiak ezagutzeko.
- Protokoloaren edukiari buruzko azalpen-kanpaina: langileen eskubideak eta betebeharrak eta haien ordezkarienak, eta Nafarroako Parlamentuko agintarien konpromisoa; esate baterako, hartu beharreko kautelazko neurriak, ardurak eta abar.
- Prestakuntza orokorreko saioak plantilla osoarentzat protokoloaren edukiei eta jarduteko prozedurei buruz.

9. ERANSKINAK.

9.1. Idazkaritza Nagusian aurkezteko eskabidearen eredua

Eskabide orokorra

..... jaun/andreak NANIFK:

Helbidea (herria eta kalea):

PK:.....

Herria:.....

Tel: email:.....

- Eskatzen du Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuari helaraz dakiola eskabide hau, erantsita duen dokumentazioarekin batera.

- Erantsitako dokumentazioa aurkezten da diziplina-espedientea irekitzearen ondorioetarako.

.....(e)ean, 20.....(e)ko(a)ren
.....(e)an.

Sinadura

NAFARROAKO PARLAMENTUKO IDAZKARI NAGUSIA

9.2. Sexu-jazarpeneko edo/eta sexuarengatiko jazarpeneko egoera bat salatzeko eskabidea.

Eskatzen dut sexu-jazarpenaren edo/eta sexuarengatiko jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa has dadin.

ESKATZAILEA:

Ukitutako pertsona Langileen ordezkaria
Laneko arriskuei aurrea hartzeko delegatua. Bestorik

JAZARPEN MOTA:

Sexu-jaz pena Sexuarengatiko jazarpena
Bestelako bazterkeriak
(zehaztu)

UKITUTAKO PERTSONAREN DATUAK:

Izen-abizenak _____
IFZ: _____ Telefonoa: _____ Email: _____
Lanpostua _____
Kontratu mota _____

EGITATEEN DESKRIBAPEN LABURRA:

Lekukorik izatekotan, adierazi haien izen-abizenak:

DOKUMENTAZIO OSAGARRI HAU AURKEZTEN DUT:

EZ BAI (zehaztu) _____

Data eta eskatzailearen sinadura

9.3. Sexu-jazarpeneko edo/eta sexuarengatiko jazarpeneko salaketak izapidetu eta ebazterakoan esku hartzen duten pertsonen konfidentzialtasunari buruzko konpromiso-eredua.

_____ jaunak/andreak,
Nafarroako Parlamentuak izendatu nauenak sexu-jazarpena, sexuarengatiko jazarpena edo/eta gainerako jazarpen motak direla-eta bere esparruan gerta daitezkeen salaketak jaso, izapidetu, ikertu eta ebazteko prozesuan esku hartzeko, konpromisoa hartzen dut prozesuaren une desberdinetan aldean konfidentzialtasuna, pribatutasuna, intimitatea eta inpartzialtasuna errespetatzeko.

Zehazkiago, honako betebeharrak hauek betetzeko konpromisoa adierazten dut:

- Bermatzea pertsonen duintasuna, prozesu osoan zehar intimitaterako eskubidea izanen dutela eta emakumeek eta gizonek tratatu berdina izanen dutela.
- Bermatzea sexu-jazarpena, sexuarengatiko jazarpena edo bestelako jazarpen motaren bat izan daitezkeen egoerei buruzko informazioaren tratamendu erreserbatua eta diskreziorik erabatekoena.
- Bermatzea aurkeztutako salaketen edukiari buruzko konfidentzialtasun eta erreserba zorrotzena, bai salaketa ebatzietan dagokienez, bai ikertzeko prozesuan daudenei dagokienez ere, eta zaintzea prozesuan esku hartzen duten gainerako pertsonen informazio mota oro zabaltzeko edo transmititzeko debekua betetzen dela.

Halaber, adierazten dut Nafarroako Parlamentuak informatu didala aurrez azaldu ditudan betebeharrak urratuz gero izan nezakeen diziplina-erantzukizunari buruz.

Data eta sinadura

9.4. Terminoen glosategia

Inguruneko erasoa: inguruneko erasotzat jotzen da sexu-izaerako jokabide oro, ondorio bezala eragiten duena bera pairatzen duenarentzat larderiako edo umiliazioko ingurune bat edo ingurune kaltegarri bat. Jazarpen mota horretan, lanpostuaren hierarkia ez da determinantea; oso ohikoa da lankideen artean edo erakundearekin harremana izan baina haren partaide ez diren pertsonen artean gertatzea. “Jazarpen horizontala” ere esaten zaio.

Quid pro quo jazarpena: jazarpen mota hau gertatzen da jazarritako pertsona behartzen denean honako hauen artean hautatzera: edo jazartzen duen pertsonaren errekerimenduen mende jarri edo laneko hobari edo baldintza batzuk galdu —esate baterako, goragako lanpostu batera aldatzea, prestakuntza jasotzea, soldata handiatzea, leku-aldatzeko aukera galtzea eta abar—. Agintekeria inplikatzeko du; horrenbestez, jazartzen dutenek aukera dute jazarritako pertsonaren lan-baldintzen gainean jarduteko. Beraz, jotzen da jazarpen mota honetan pertsona aktiboak direla lan harremanaz erabakitzeke ahalmena dutenak; hau da, hierarkikoki jazarpena jasotzen duenaren gainean dagoena. Hori dela eta, “jazarpen bertikala” ere esaten zaio.

Hertsapena: norbaitek beste gizabanako batengan erabiltzen duen indarkeria fisiko, psikiko edo morala izendatzeko erabiltzen da; horren helburua da gizabanako hori behartzea bere borondatearen aurkakoa den zerbait esatera edo egitera, edo ekintza nahiz pentsamenduren bat inhibitzea.

Tratu-desberdintasuna: kolektibo desberdinen artean tratu-berdintasunean huts egitea modu arbitrario eta sistematikoan, kolektibo bati mesede eginez gainerakoek kaltetan.

Atzematea: indarkeria matxistaren arazoa identifikatu eta ikustaraztea bideratzen duten tresna teoriko eta teknikoak funtzionamenduan jartzea, bai goiz agertzen direnean, bai egonkorak direnean ere; tresna horiek aukera emanen dute, halaber, esku hartzen deneko egoerak ezagutzeko, haien garapena eta kronizitatea saihesteko.

Bereizkeria: bereizkuntzak eta desberdintasuneko jokabide arbitrarioak aplikatzea pertsona bati edo talde bati ingurune jakin batean, sexua, etnia, ideologia, adina, sexu-aukera edo beste arrazoi batzuk direla eta.

Sexuarengatiko eta sexu-orientazioarengatiko zuzeneko bazterkeria: konparagarria den egoera batean, tratu ez hain mesedegarria, beste batenarekin alderatuta, jasaten duen, jasan duen edo jasan ahal duen pertsonaren egoera. Nolanahi ere, bereizkeriazkotzat jotzen da sexuarengatik eta sexu-orientazioarengatik zuzenean bereizteko edozein agindu.

Sexuarengatiko eta sexu-orientazioarengatiko zeharkako bazterkeria: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo jokaera batek sexu edo sexu-orientazio jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko edo sexu-orientazioko pertsonari begira, non xedapen, irizpide edo jokaera hori modu objektiboan justifikatzen ez den, xede legitimo baten bitartez, betiere, xede hori lortzeko bideak beharrezkoak eta egokiak izanda. Nolanahi ere, bereizkeriazkotzat jotzen da sexuarengatik eta sexu-orientazioarengatik zeharka bereizteko edozein agindu.

Errepresalien aurrean kaltegabatasuneko bermea izatea: aurkako traturik ez pairatzeko eskubidea, bereizkeria ekiditeko eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea bermatzeko aurkeztutako edozein motatako

kexaren, erreklamazioren, salaketaren, demandaren edo errekurtsoren ondorioz. Egoera hori ere sexuarengatiko bereizkeriatzat jotzen da.

Generoa: genero kontzeptuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak (desberdintasun biologikoei kontrajarrita) adierazten ditu; desberdintasun horiek ikasi egiten dira, denborarekin aldatu egiten dira eta kultura batetik bestera aldatzen dira, eta horrenbestez, aldatu, berrinterpretatu eta berreraiki daitezke.

Genero ez bitarra: genero bitarrak (emakumea eta gizona; hau da, emakumea edo gizona modu eskusiboan izatea, aldaketarik gabe) edo agenero (genero identitaterik gabea) ez diren genero-identitate guztiak.

Frogaren kargaren inbertsioa: printzipio prozesal bat da, zeinarekin salbatu nahi baita zuzenbide zibilean oraindik ere indarrean dagoen printzipio baten egokitasuna (Kode Zibilaren 1214 artikulua); hain zuzen ere honako hau dioen printzipioarena: *“betetzea erreklamatzeko duen pertsonari dagokio betebeharren frogak”*. Oinarrizko eskubideen urraketak eta bazterkeriako jokabideak frogatzeak daukan zailtasuna dela eta, Konstituzio Auzitegiak, 38/1981 epaitik aurrera, frogaren karga dela-eta malgutasuna baimendu zuen bi gai horietan. Frogaren kargaren inbertsio horrek berekin dakar ezen, bazterkeriaren xede dela baieztatzen duen pertsonarengan zantzu nahikoak egonda edo oinarrizko eskubideak urratuta, beste aldea dela (enpresa edo erakundea) frogatu behar duena bere jokabidea egokia, objektiboa eta aplikatzekoak diren lege- eta erregelamendu-aurreikuspenen arabera izan dela. Jokabidearen zuzentasuna frogatzerik ez badago, joko da alegatu den bazterkeria edo eskubide-urratzea badagoela.

Kautelazko neurriak: arrazoiak tarteko egiten diren ekintzen edo hartzen diren erabakien multzoa, sexu-jazarpeneko edo sexuarengatiko jazarpeneko zantzuak daudenean, amaierako emaitza aurrez juzgatu gabe, ekintza edo erabaki horiek inplikaturako aldeak babesteko berme gisa har daitezkeenean.

Ebazpen-neurriak: esku hartzeko prozesua, erakundean zehaztua, sexu-jazarpeneko edo sexuarengatiko jazarpeneko egoera baten komunikazioak eta salaketak egiteko.

Prebentzio-neurriak: ez sexu-jazarpenik, ez sexuarengatiko jazarpenik ez gertatzea helburu duten ekintzen multzoa (ekintza zehaztu, plantifikatu, aurrera eraman eta ebaluatuak).

Bazterkeria anitza: bazterkeriako hainbat faktore batera gertatzea, haiek pairatzen dituen pertsonarentzat haien ondorioak direnean hura osatzen duten bazterkerien batura soiletik heldutakoak baino handiagoak (esate baterako, genero eta arraza, klase soziala, generoa eta desgaitasuna, sexu-orientazioa eta adina eta abarrekoak batera gertatzen direnean). Bazterkeria anitza eraso larriago bat da tratu-berdintasunerako eta bazterkeria-ezerako.

Genero-ikuspegia: edozein jardueratan eta esku-hartze baten edozein esparrutan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak aintzat hartzen dituen analisi-teknika bat.

Bateragarritasunerako politika: jarduketaren bidez handitu nahi da langileen bizitza pertsonalaren, familiarren eta lanekoaren kalitatea, eta haiek bateragarriagoak izan daitezzen bideratu nahi da.

Erantzukidetasunerako politika: erantzukidetasuneko politikek nabarmentzen dute bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateragarriak izateko ezarritako neurriak

azpimarra jarri behar dutela emakumeek eta gizonek ugalketa-lana eta etxeko lana modu orekatuan banatzean, biek erantzukizun horiek orekaz har dezatela sustatuz.

Prozedura: neurriak, arauak edo/eta egitate zehatzak, formalki ezarriak, sexu-jazarpenerako edo/eta sexuarengatiko jazarpenerako egoera bati aurre egitera bideratuak.

Protokoloa: inplikaturako eragileekin negoziaturako tresna, zeinak biltzen baitu sexu-jazarpenerako edo sexuarengatiko jazarpenerako egoera baterako prebentzio-neurrien edo egoera horri aurre egiteko neurrien multzo bat.

Prebentzioa: indarkeria matxistaren arazoaren eragina arrisku-faktoreak gutxituz saihestera edo murriztera eta normalizazioa eragoztera bideraturako ekintzen multzoa; multzo horretan, halaber, herritarrak, bereziki emakumeak, sentsibilizatzeko ekintzak egonen dira, ez dezaten indarkeriarik ez justifikatu, ez toleratu.

Erreparazioa: neurri juridiko, ekonomiko zein sozialen eta laneko, osasuneko zein hezkuntzako neurrien eta antzekoen multzoa, indarkeria matxistaren esparruko esku-hartzearen erantzule diren hainbat erakundek eta eragilek hartutakoena. Neurri horiek lagungarri gertatuko dira bizitako egoerak kaltetutako esparru guztiak berrezartzeko.

Bazterkeriazko errepresalia: pertsona bati ematen zaion kalteko tratua edo heltzen zaion ondorio negatiboa, jasanarazten edo jasanarazi zaion bazterkeria edo jazarpenera ekidin, gutxitu edo salatze aldera edonolako kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo errekurtsio aurkezteagatik.

Genero-rolak: gizonentzat eta emakumeentzat egokiak diren jokabideari eta jarrerari buruzko espektatibak dira.

Jarraipena: informazioaren aldizkako bilketara orientaturako lan-prozesua; horren helburua da esku-hartze baten emaitzak kontrolatzea, irizpide edo adierazle jakin batzuen arabera.

Sentsibilizazioa: gizartearen irudian aldaketak —indarkeria matxista desagerrarazteko bidean aurrera egitea bideratuko dutenak— sortzera bideraturako ekintza pedagogiko eta komunikatioben multzoa.

Bigarren biktimizatzea edo birbiktimizatzea: erakunde erantzuleek egindako esku-hartzeen eta ukitutako beste eragile batzuegandik heldutako jarduketara desagokien defizit kuantitatibo zein kualitatibo zuzeneko nahiz zeharkako ondorio diren jazarpenerako egoeretan dauden pertsonen aurkako tratua txar gehigarria.

10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA WEB-ORRI INTERESGARRIAK.

10.1. Bibliografia

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoa.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egitekoa
- Lurralde Politikako eta Herri Administrazioetako Ministerioa. “Estatuko Administrazio Orokorraren eta hari lotutako erakunde publikoen esparruan sexu-jazarpenaren eta sexuarengatiko jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa”. 189. EAO, 2011ko abuztuaren 8a, astelehena.
- Berdintasun Ministerioa, sexu-jazarpenari eta sexuarengatiko jazarpenari buruzko zabalkundeko materiala. Madril, 2010.
- Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa. “Sexu-jazarpenera eta sexuarengatiko jazarpena”: 9. laguntza-tresna.
- Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa. “Lanean sexu-jazarpeneko eta sexuarengatiko jazarpeneko kasuetan jarduteko eta prebenitzeko prozedurak taxutzeko erreferentziako eskuliburua”. 2015 ekaina.

10.2. Erreferentziako web-orriak

<http://www.empleo.gob.es/es/igualdad/>

www.inmujer.gob.es/

www.igualdadenaempresa.es

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Igualdad+de+genero/

http://www.navarra.es/home_eu/Gobierno+de+Navarra/Departamento+Relaciones+Ciudadanas+Institucionales/Instituto+Navarro+Igualdad.htm

<https://www.unavarra.es/unidad-igualdad/normativa/foral?languageld=100001>